



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

OSASUNA

1. Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2
2. Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko laguntzak 4
3. Adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta jarduera-eremu horretan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak 5
4. Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta adikzioen esparruan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak 7
5. EAEn zehar GIBA/HIESA, cha eta stiak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimenerako erakundeek zuzendutako dirulaguntzak..... 8
6. EAE-n gaixoen kolektiboen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak..... 10
7. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jarduera fisikoa sustatzeko diru-laguntzak..... 12
8. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak 14
9. Arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak - 2018 16
10. Osasunaren esparruan diharduten Irabazi-Asmorik Gabeko Elkarteentzat, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoentzat eta osasun alorreko profesionalen elkargo ofizialarentzako laguntzak. laguntzen xedea: erakunde horien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntzarako jardueren antolaketa 2018 urtean zehar..... 18
11. Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2017 eta 2018 urteei buruzkoak 20



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Osasuneko sailburuarena, osasunari buruzko ikerkuntza- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2018ko deialdia arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 99 zk., 2018ko maiatzaren 24a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802756e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 250 zk., 2018ko abenduaren 31.

- 1. lerroa: «Osasuneko ikerketa-jarduera sustatzea»
- 2. lerroa: «Osasuneko ikerketa estrategikoa sustatzea»
- 3. lerroa: «Interes bereziko ekintza osagarriak»

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan adierazitako jarduketan azken helburua da pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatuz.

Laguntza-lerro berri bat sartu izana da 2018ko deialdiko berritasun nagusia, «Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko hori. Bada, I+G proiektuetatik zuzenean ez datozen xedeen bidez osasuneko biozientzien arloan RIS3 estrategia indartzea da horren helburua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskaeren guztizko kopurua (1., 2. eta 3. lerroak): 154. Esleitutako proiektuen guztizko kopurua: 57

«Osasuneko ikerketa-jarduera sustatzea» izeneko 1. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 101.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 24.

«Osasuneko ikerketa estrategikoa sustatzea» izeneko 2. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 50.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 32

«Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 3. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 3.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 1.



Esleitutako 57 proiektuetatik 25etan, emakumeak ziren ikertzaile nagusiak (diruz lagundutako proiektuen % 44), eta aurrekontuaren % 31 bideratu da emakumeek gidatutako proiektuetara.

Baliozko eskaeren artean, 81 ezin izan dira finantzatu aurrekontu-hornidura faltagatik, eta beste 16 ezin izan dira finantzatu ez dituztelako bete deialdian eskatzen diren betekizunak.

Erabilgarri zeuden funtsen % 100 exekutatu da.

Hautatutako proiektuek, kalitate zientifiko altua edukitzeaz gain, inpaktu sozial handiko gai biomedikoak edo oro har osasun-arlokoak jorratzen dituzte, eta osasun-sistemaren jarduna nahiz herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko xedea dute. Besteak beste, proiektuek eremu hauei heltzen diete: diagnostikoa edota pronostikoa, hainbat gaixotasunen tratamendu terapeutikoa (besteren artean, neurodegeneratiboena), medikuntza pertsonalizaturiko teknologiak, gaixotasunen arrisku-faktoreen identifikazioa, balio urriko agindu farmakologikoen desagerpena, hondatze klinikoaren alarma goiztiarra, zahartzea eta hainbat patologia (hala nola, minbizia, gaixotasun arraroak, haurren obesitatea eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua	35	57



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13ko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez diru-laguntzak deitu dira adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzeko, eta jokabide osasungarriak bultzatzeko jardun-eremu horietan talde teknikoak sortu eta mantendu daitezen 2018ko ekitaldian.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 125 zk., 2018ko ekainaren 29a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 92. zk., 2019ko maiatzaren 17a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902344e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak oso onak dira: 36 toki-erakunde:

- Arabako 4 udal eta Arabako Foru Aldundia
- Gipuzkoako 12 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 20 udal/mankomunitate

Kapitulu honen diru-zuzkidura 1.174.135 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 38,64 da (3.038.126,69 €).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emakida-kopurua, toki-erakundeak	35	36



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta jarduera-eremu horretan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13ko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez diru-laguntzak deitu dira adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzeko, eta jokabide osasungarriak bultzatzeko jardun-eremu horietan talde teknikoak sortu eta mantendu daitezen 2018ko ekitaldian.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 125 zk., 2018ko ekainaren 29a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 92. zk., 2019ko maiatzaren 17a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902344e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea da 2018an zehar EAEko toki-erakundeei arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko, bai eta ohitura osasungarriak sustatzeko programak eta esku-hartzeak garatzeko emango zaizkien diru-laguntzak arautzea. Programa eta esku-hartze horiek adikzioen edo droga-mendekotasunen alorreko tokiko planetan egon behar dute, –plan horiek onartuta edo prestatzeko prozesuan daudela–. Udalek banaka edo mankomunatuta prestatu eta garatu behar dituzte plan horiek, eta ekintza egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatu behar dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak oso onak dira:

45 toki-erakundek egindako 45 programa lagundu dira diruz; eskabide bati ukatu zaio diru-laguntza aginduan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

- Arabako 3 udal
- Gipuzkoako 20 udal/mankomunitate
- Bizkaiko 22 udal/mankomunitate

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 561.765 eurokoa da. Emandako laguntza, guztira, eskabideen aurrekontuan jasotakoaren % 16,27 da (3.452.697 €).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Emakida-kopurua, toki-erakundeak	45	45



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta adikzioen esparruan ohitura osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13ko Agindua, Osasuneko sailburuarena. Horren bidez diru-laguntzak deitu dira adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak gauzatzeko, eta jokabide osasungarriak bultzatzeko jardun-eremu horietan talde teknikoak sortu eta mantendu daitezen 2018ko ekitaldian

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperresteka)

Deialdia: EHAA 125 zk., 2018ko ekainaren 29a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 92. zk., 2019ko maiatzaren 17a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902344e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien onuradun izan daitezke 2018an adikzioen eremuko arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko, bai eta jarduera-esparru horretan ohitura osasungarriak sustatzeko proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko laguntza-programa efikaza izan da helburu hauek lortzeko.

37 entitateak izan dira onuradun, 72 proiektuekin. Entitate batzuek proiektu bat baino gehiago aurkeztu dituzte. 3 proiektuk ez dute jaso diru-laguntzarik aurrekontu-partida agortu egin delako.

Kapitulu honetako diru-zuzkidura 882.500 €-koa izan zen. Emandako laguntza, guztira, eskabide guztien aurrekontuan jasotakoaren % 22,5 da (3.916.880 euro).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emakida-kopurua, irabazi-asmorik gabeko erakundeak	40	37
Emandako proiektuen kopurua	65	72



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEEn zehar GIBA/HIESA, cha eta stiak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundeei zuzendutako dirulaguntzak

2.- Araua

Agindua, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Osasun sailburuarena; honen bidez, laguntzearako deia egiten zaie EAEEn GIB/hiesa, C hepatitis eta sexu bidez transmititzen diren infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 99 zk., 2018ko maiatzaren 24a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802755e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 201 zk., 2018ko urriaren 18a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1805104e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Herri Administrazioek martxan jartzen dituztenak ezinbestekoak dira infekzio horren transmisioa prebenitzeko ahalegin bateratu horretan laguntzeko eta birus eramaileen egoera hobetzeko.

GIB birusaren gaixotasunaren diagnostiko goiztiarra sortutako proiektua hauek lagungarriak dira:

- a) Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kontuan hartuta zenbaterainoko garrantzi epidemiologikoa duen giza-talde horrek gaur egun.
- b) GIBari dagokionez egoera ziurgarrian dauden beste giza-talde batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak eta prostituzioan lan egiten dutenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Hortaz, 300.000,00 €-ko diru-laguntza jaso dute hainbat proiektu eta jarduerak. Horien bitartez, erakundeek behar-beharrezkoa den lana bideratzen dute, Administrazioa ez baita heltzen zenbait giza-talderi babesa ematera eta horiei prebentzioan aurrera egiten laguntzera.

Dirulaguntza guztiaren %36a harreman homosexualak dituzten gizonei zuzendutako proiektuei bideratu da, %18a prostituzioan aritzen diren zuzendutako proiektuei, %12a droga injektatzaileei zuzendutakoei, %10a kanpotarrei zuzendutakoei, %12a diagnostiko berantiarra laguntzeko proiektuei eta %12a laguntza emozionala lantzen duten proiektuei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jasotzen duten elkarte kopurua	16	17



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAE-n gaixoen kolektiboan eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko elkarteentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntzetarako deialdi bat egiten baita, EAEko gaixoen eta haien familien kolektiboan bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzenduta. (2018ko ekainaren 29ko EHAA, 125. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

Deialdia: EHAA 125 zk., 2018ko ekainaren 29a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803389e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804233e.shtml> (aldaketa)

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 218. zk., 2018ko azaroaren 13a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805566e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboan eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea da diru-laguntzen lerro hauek duten helburu nagusia.

Zehatzago esateko:

- Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboan eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta autonomia areagotzeko.
- Gaixoei laguntza eta jarraibideak ematea dituzten behar soziosanitarioen inguruan.
- Gaixoei eta haien familiei gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa sakontzea.
- Gaixoei osasun aldetik besteekiko dituzten desberdintasunak gutzitzea.

Gaixoen elkarteak pertsona fisikoen taldeak dira, eta, horietan, patologia bera pairatzen duten pertsonak elkartzen dira. Halako elkarteek honako helburu hauek dituzte: dena delako gaixotasuna eta berau sendatzeko tratamenduak hobeto ezagutzeko lan egitea, gaixoei elkarri laguntzea, herritarrei gaixotasuna prebenitzeko argibideak ematea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Deialdiaren % 100 esleitu zen, 300.000 €ko zenbatekoarekin.

Hainbat patologia-mota dituzten paziente eta familiei zuzendutako jardueretarako diru-laguntzak eman dira. Hona hemen patologiaak:



- Minbizia
- Diabetesa
- Buru- eta portaera-nahasmenduak
- Nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmendua
- Elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Gaixoentzako eta familiarakoentzako autolaguntza- eta babes-taldeak
- Laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guzien bizi-kalitatea handitzeko.
- Talde-terapiak
- Pazienteentzako eta familiarakoentzako prestakuntza-hitzaldiak
- Gaixotasunen informazio eta sentsibilizazioa
- Informazio-gida espezifikoen prestaketa

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Proiektu subentzionatuak	60	118



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jarduera fisikoa sustatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematea arautzen baita, 2018ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-eremuan jarduera fisikoa sustatzeko. (2018ko uztailaren 2ko EHAA, 126 zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 126 zk., 2018ko uztailaren 2a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803418e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804232e.shtml> (aldaketa)

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 218. zk., 2018ko azaroaren 13a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805565e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburu nagusia da, alde batetik, osasuna indartzea toki-eremuko jardueretan eta osasun-arlokoak ez diren gainerako lan-eremuetan; bestetik, biztanleek oro har eta sedentarioenak diren biztanleek bereziki jarduera fisikoarekiko duten jarrerak hobetze aldera toki-erakundeek egiten dituzten programa eta jarduerak indartzea, horiek finantzatuz, eta, bestetik, udalerrietan mugikortasun aktiboa sustatzea.

Deialdi honetan, lehentasuna eman zaie hirietan eta hiri-inguruetan ibilbideak edo pasealekuak egokitzeko eta dinamizatzeko programak eta esku-hartzeak, herritar guztiei zuzenduak; ibilbide horiek seguruak izango dira eta behar bezala seinaleztatuta egongo dira, ohiko joan-etorrietan mugikortasun aktiboa errazteko eta aisialdi aktiboa sustatzeko eta esku-hartze komunitarioko tokiko sare edo talde bat, diziplina anitzekoa eta sektoreartekoa, sortzeko beharrezkoak diren jarduerak. Tokian-tokian jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak lehenetsi, planifikatu eta garatuko ditu sare horrek partaidetzazko prozesuen bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren % 100 esleitu zen, 292.000 €ko zenbatekoarekin.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Ardatzak edo hiri-ibilbideak sortu, egokitu eta seinaleztatzea.
- Leku horiek erabiltzeko programak dinamizatzea.
- Jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak koordinatzen



dituzten tokiko sareak sortzea.

Laburbilduz, bidalitako memorien ebaluazioan oinarrituz esan daiteke positiboak izan direla diru-laguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Proiektu subentzionatuak	90	97



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei, ikasle-elkarteei eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzekoak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko irailaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten baita, 2018-2019 ikasturtean zehar EAEko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak gara ditzaten. (EHAA, 185. zk., 2018ko irailaren 25ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EHAA, 185. zk., 2018ko irailaren 25a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/09/1804668e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 227. zk., 2018ko azaroaren 26a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805791e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza honen helburua da toki-eremuko eta osasun-arlokoak ez diren gainerako eremuetako jarduketetan osasuna indartzea, eta, horretarako, EAEko ikastetxeetan eskola-bideak sortzea.

Laguntza hauen helburua da 2018-2019 ikasturtean zehar EAEko ikasleen guraso-elkarteak, ikasle-elkarteak eta irakaskuntza-kooperatibak finantzatzea, eskola-bideak sortu eta dinamiza ditzaten. Ikasleak kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugitu ahal izatea eta eremu publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzea da eskola-bideei buruzko proiektuen xedea. Gainera, eskola-giroan mugikortasun aktiboa sustatzea tresna eraginkor bat izan daiteke txiki-txikitik herritarrak kontzientziatzeko jarduera fisikoak osasunari dakarkion onuraz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an, eskaerak aurkezteko epea zabaldu zen (33 eskari), horiei buruzko esleipen-ebazpena eman zen (28ri eman zitzaien laguntza), eta esleitutako kopuruaren %70a ordaindu zen (65.800€).

Honako hauek izan dira diruz lagundutako proiektu nagusiak:

- Proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa.
- Ikastetxearen inguruan zer mugikortasun dagoen aztertzea.
- Solasaldiak, tailerrak edo komunikazio-kanpainak antolatzea.
- Behar den materiala



- Ekimen honetara atxikitzen direnen ikasleentzako pizgarriak.
- Mugikortasun aktiboa bultzatzen duten ikastetxeetako espazioak egokitzea.

2018an 2017-2018 ikasturteko deialdia bukatu da, justifikazioak aurkeztu eta esleitutako %30 ordaindu ondoren (28.200€). Bidalitako memorien ebaluazioan oinarrituz esan daiteke positiboak izan direla dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Proiektu subentzionatuak	30	28



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak - 2018

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko irailaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko 2018ko deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperresteka)

Deialdia: EHAA 194 zk., 2018ko urriaren 8a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1804899e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 250 zk., 2018ko abenduaren 31

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806420e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da deialdia egitea osasunaren arloan 2018. urtean hasiko diren prestakuntza-jarduerak finantzatzeko bekak eta laguntzak emateko, eta haiek emateko modua arautzea.

Honako bekak eta laguntzak emango dira:

- Atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak.
- Estatuko unibertsitateetan lau arlo espezifikotan (osasun-kudeaketan, osasun publikoan, zainketa aringarrietan eta familia- eta komunitate-medikuntzaren garapena) gaitasun aurreratuak lortzeko prestakuntza-jarduerak egiteko bekak eta laguntzak. Prestakuntza-jarduerak graduondoko kategoria eduki beharko dute (titulu ofizialak edo propioak), eta, gutxienez, 60 ECTS kredituko karga akademikoa eduki beharko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018rako deialdiaren zenbatekoa 108.010,00 eurokoa izan da (81.008,00 euro 2018ko aurrekontuaren kargura, eta 27.002,00 euro 2019rako konpromiso-kredituei dagozkienak).

Deialdia ebatzita, aurrekontuaren 105.972,00 euro esleitu dira.

Esleitu diren banakako beken kopurua 59koa izan da: 3 atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko, eta 56 estatuko zentroetan osasun-kudeaketaren, osasun publikoaren, zainketa aringarrien eta familia- eta komunitate-medikuntzaren garapenaren arloko gaitasunak lortzeari begirako prestakuntza-jardueretarako.

Lurraldearen eta urtearen arabera, honako hau da banaketa:



Lurraldea	Onuradunen kop.	2018ko ekitaldia	2019ko ekitaldia	Guztira
Araba	7	8.683,50	2.894,50	11.578,00
Bizkaia	36	43.518,00	14.506,00	58.024,00
Gipuzkoa	16	27.277,50	9.092,50	36.370,00
Guztira	59	79.479,00	26.493,00	105.972,00

Jasotako 83 eskaeretatik, 2k uko egin dute eta batek atzera, eta 20 eskaera ukatu dira (4 Araban, 12 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan) arrazoi hauengatik: 2018an ez hasteagatik; jarduera deialdian zehaztutako eremuan ez egoteagatik; behar zen puntuaziora ez iristeagatik; betekizunak ez betetzeagatik; eta eskabidea epez kanpo aurkezteagatik.

Egin diren aldaketek eskaerak eta esleipenak areagotzea eta hobetzea ekarri dutela uste dugu; hortaz, beken eta laguntzen programa hori xedeak lortzeko (hau da, biztanleei eskaintzen zaien osasun-arreta hobetzeko) modu eraginkorra dela balioesten dugu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Atzerriko zentroetan ikastaroak eta egonaldiak egiteko eman beharreko beken eta laguntzen kopurua	10	3
Atzerriko osasun zentroetan osasun-kudeaketaren, osasun publikoaren, zainketa aringarrien eta familia- eta komunitate-medikuntzaren arloetan gaitasunak lortzeari begirako prestakuntza-jardueretarako ikastaroak eta egonaldiak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua	20	56
Jasotako prestakuntza beraien lanerako eraginkorra izan dela uste dutenen ehunekoa	ehunekoa >(75)	(1)

(1): Oso aldekoa, beka eta laguntza hauen eskatzaileei egindako asebetetze-inkesteetan jasotako erantzunek adierazten dituzten emaitzen arabera, arlo sanitarioko profesionalentzako beken eta laguntzen programa hau deitzen jarraitu behar dugulakoan gaude, pazientearen asistentzia-arloa hobetzeari begira.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasunaren esparruan diharduten Irabazi-Asmorik Gabeko Elkarteentzat, osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoentzat eta osasun alorreko profesionalen elkargo ofizialarentzako laguntzak. laguntzen xedea: erakunde horien funtzionamendua eta langileen etengabeko prestakuntzarako jardueren antolaketa 2018 urtean zehar

2.- Araua

Agindua, 2018ko urriaren 23koa, Osasun Sailburuarena, zeinaren bidez osasunaren esparruan diharduten profesionalen elkargoek, irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoek 2018ko funtzionamendurako eta langileen etengabeko prestakuntzako jardueren antolaketarako laguntzen deialdia egin eta laguntza horiek arautzen diren.

3.-Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: EHAA 217 zk., 2018ko azaroaren 12a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/11/1805543e.shtml>

Ebazpenaren argitarapena: EHAA 10 zk., 2019ko urtarrilaren 15a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900206e.shtml>

4.-Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak.

Programaren helburua da honako hauetatik eratorritako gastuak finantzatzeko laguntzak ematea:

- Osasun arloko profesionalen bideratutako jarduera zientifikoaren hedapenerako eta prestakuntzarako jardueren antolakuntza, bi modalitate hauetan:
 - Bilkura zientifikoak antolatzea, hau da, kongresu, sinposium, jardunaldi, mintegi eta hitzaldiak.
 - 100 ordu baino gutxiagoko ikastaroak eta tailerrak antolatzea.
- Beren eginkizuna osasun arloan garatzen duten elkarten, osasun arloko espezialitateetako erakunde zientifikoek eta osasun arloko profesionalen elkargo ofizialen funtzionamendua, horiek irabazi-asmorik gabeak direnean, eta langileei prestakuntza eta eguneratze teknikoak eskaintzen dietenean edo osasun-ikerketak sustatzen dutenean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa handitu egin da (79.409 €), eta honela banatuta dago:

- Bilkura zientifikoak antolatzeko laguntzak: 19.852 €
- Ikastaroak eta tailerrak antolatzeko laguntzak: 27.793 €
- Erakundeen eraketa eta funtzionamendurako laguntzak: 31.764 €



Deialdia ebatzi ostean, aurrekontuan gaineratutakoaren % 97 esleitu da.

Emandako zenbatekoaren eta lurraldearen araberrako banaketari dagokionez, honela geratu ziren laguntza-lerroak:

Lurraldea	Ikastaroak	Bilerak	Erakundeak	Guztira
Araba	8.712,00	0	0	8.712,00
Bizkaia	11.841,00	5.286,00	26.985,00	44.112,00
Gipuzkoa	5.249,00	1.869,00	12.360,00	19.478,00
Guztira	25.802,00	7.155,00	39.345,00	72.302,00

2018ko ekitaldirako aurreikusitako helburuen artean, 39 laguntza eman ziren, 27 ikastaroetarako, 5 bilera zientifikoetarako, 7 erakundeen eraketa edo funtzionamendurako.

Lurraldea	ikastaroak	Bilerak	Erakundeak	Guztira
Araba	9	0	0	9
Bizkaia	10	3	4	17
Gipuzkoa	8	2	3	13
Guztira	27	5	7	39

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Bilera zientifikoak antolatzeko eman beharreko laguntzen kopurua	14	5
Diru-laguntza jasotzen duten bileretara joaten direnen kopurua	3.000	2.900
Ikastaroak eta tailerrak antolatzeko eman beharreko laguntzen kopurua	70	27
Diru-laguntza jasotzen duten prestakuntza-jardueretan eman beharreko eskola-orduen guztizko kopurua	>600	585
Diruz lagundutako prestakuntza jasoko dutenen profesionalen kopurua	>6	8
Erakundeen eraketa edo funtzionamendurako eman beharreko laguntzen kopurua	9	7
Diruz lagundutako jardueren artean helburuei dagokienez Osasun Sailaren lehentasunezko arloetan kointzidentzia maila handia edo ertaina lortu dutenen ehunekoa	>80	100



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2017 eta 2018 urteei buruzkoak

2.- Araua

47/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa (EHAA 227. zk., 2013ko azaroaren 28a).

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen duen Dekretua (EHAA 220 zk., 2017ko azaroaren 17a).

AGINDUA, 2018ko otsailaren 20koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2017ko eta 2018ko laguntzak emateko (EHAA 43 zk., 2018ko martxoaren 1a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Araua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/11/1305170e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/11/1705522e.pdf>

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801092e.shtml>

Emate-erabakiak:

<http://www.euskadi.eus/web01->

a2inform/eu/contenidos/informacion/ayudas_adherencia_2018/eu_def/index.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketenak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonen bete ditzaten erraztea du xedetzat dirulaguntza-programa honek.

Agindutako tratamendu mediko bat betetzeko orduan ordaindu behar izan dituzten zenbatekoak itzuliko dira -hala egin behar denetan-, betiere finantzaketa publikoa jaso dezaketen tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarriei dagokienez.

Nork jaso ditzakeen laguntza hauek? Objektiboki gaixo eta premian egon behar dute, eta 447/2013 Dekretuko 3.1 artikuluan datozen baldintzak bete.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

EAEko biztanleek aurkeztutako %100 eskaerek izapidetu dira. Aurtengo maiatzaren 9a arte, %89 onespen ebazpena izan dute, %9 ezezko ebazpena izan dute, eta %2a ebatzi gabe daude.

Onespen ebazpenak ekarri dute, alde batetik, 84.000 inguru gaixo eta premian dauden pertsonak, Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoari heldu ahal izatea; eta, beste alde batetik, agindutako tratamendu medikoa bertan behera uzteak okerreko beste ondorioz ere ez izatea, eta, horrela, haiek saihestea ere lortu da; ona, inondik inora ere, ez, soilik, ekonomiari begiratuta, baita beste irizpide batzuk kontuan hartuta ere, hala nola, ongizate soziala, bizi-kalitatea... Horregatik guztiatik, garbi dago programa honek berebiziko eragin ona duela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurreikusitako eskaerak	110.400	95.244